

BERDIN ARTATZEN AL DITUGU PAZIENTEAK EMAKUMEZKO ALA GIZONEZKO IZAN? DESIGUALDADES DE GÉNERO EN LA ATENCIÓN SANITARIA

Uda Ikastaroa — Presentzialki edo online

Zuzendaria: Ainitze Labaka Etxeberria. UPV/EHU, Erizaina, Psikologian doktorea.



UPV/EHU
UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
UPV/EHU

Zergatik diagnostikatzen zaizkie berandu emakumeei bihotzeko gaixotasunak? Ba al dute gizonek osteoporosirik? Emakume gehiago bizi bada minez, zergatik ematen zaie analgesia gutxiago? Zer gertatzen da gutxiengo sexualekin? Uda Ikastaro honetan kontu horiek aletzen ahaleginduko gara. Osasun erabiltzaile moduan, gure sexuak eta generoak zainketa, diagnostiko edota tratamenduak jasotzeko garaian zein eragin izan dezakeen aztertuko dugu. Osasun profesional moduan, gure genero aurreiritziek balorazio klinikoan izan dezaketen eraginaren inguruan hitz egingo dugu. Horretarako, nazioarteko ikerketei ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-estatistikei ere erreparatuko diegu.

Ikasiz eta desikasiz, gure osasun potentzial maximora iristea oztopa diezaguketen genero-iseriak identifikatzeko eta berauei aurre egiteko estrategiak ezagutara emango ditugu ariketa interaktibo bidez. Parekideak eta aldi berean ezberdinak izateko eskubidea daukagulako. Uda Ikastaroko 3 konferentzia euskaraz egingo dira eta 3 gazteleraz. Mahai-inguruetan ikasleek bi hizkuntzetan parte hartu ahal izango dute, baita galdera eta iradokizunak egiterakoan ere.



Non? Miramar Jauregia, Donostian

Matrikula: www.uik.eus

Osasun profesionalak %75 merkeago

1. EGUNA / Ekainak 30

09:15 - 09:25 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena
- Ainitze Labaka Etxeberria. EHU Erizaina, Psikologian doktorea.

09:30 - 10:15 Genero ezberdintasunak gure osasun sisteman
- Ainitze Labaka Etxeberria. EHU, Erizaina, Psikologian doktorea.

10:15 - 11:00 Desigualdades de género en salud mental
- Amaia Bacigalupe De la Hera. EHU, Soziologoa, Osasun Publikoan doktorea.

11:00 - 11:30 – Geldiunea

11:30 - 12:15 Diferencias sexuales en la infancia a nivel fisiológico y comportamental.
- Eider Pascual Sagastizabal. EHU, Psikologian doktorea.

12:15 – 13:15 Osasuneko genero inekitateak guztion artean identifikatzen:
Adibide eta ariketak

2. EGUNA / Uztailak 1

09:15 - 10:00 Ikerketa preklinikoak
- Olatz Goñi Balentziaga. EHU, Psikologian doktorea.

10:00 – 10:45 Genero disidentzia eta gutxiengo sexualen osasun arreta
- Ander Lizarralde Arrieta. Osakidetza, Erizaina, Berdintasun planeko arduraduna.

10:45 - 11:15 – Geldiunea

11:15 - 12:00 La salud tiene género
- Inmaculada Acero Palacios. Ekonomista, Mujeres de Cuidado elkartearen sortzailea.

12:00 - 13:00 Guztion artean genero arrakala murriztuz: Adibide eta ariketak.

13:00- 13:20 Sintesia eta itxiera

